a) Identificación de la asignatura superada que es origen de reconocimiento: denominación.

b) Si la resolución es favorable, la asignatura o asignaturas del plan de estudios de la UD que resultan reconocidas, con la calificación que corresponda en aplicación de esta Normativa.

c) Si la resolución es desfavorable, la motivación expresa de la denegación.

4. En la resolución de reconocimiento de una asignatura en razón de la experiencia laboral o profesional acreditada deberá consignarse la prueba o pruebas realizadas, las competencias contrastadas y, en caso de ser favorable, el número de créditos y las asignaturas reconocidas.

5. Los reconocimientos de las asignaturas que estén contemplados en la adaptación de expedientes entre un plan de estudios y otro, y que figura en la memoria aprobada para la implantación de un nuevo plan de estudios, no requieren resolución de la Comisión y se aplicarán de forma automática, según se describe en el capítulo III de estas normas.

6. En el plazo de siete días naturales a partir del día siguiente a la notificación de la resolución desfavorable, el estudiante podrá presentar solicitud razonada de reconsideración, siempre y cuando aporte nuevos datos que la justifiquen o la resolución no estuviera debidamente fundamentada. Si la reso-

emango den arloko irakasleen aholkularitza eskatu ahal izango dute, baina irakasle horien iritzia ez da loteslea izango.

b) Proba, elkarrizketa edo hautemateko edo ebaluatzeko beste bide batzuen bidez egiaztatzea eskatzaileak egiaztatutako laneko edo lanbideko esperientzia bat datorrela ikasgaiari edo ikasgaiei lotutako gaitasunen menderatzemailarekin.

c) Ikasleek aitorpena eskatzeko behar duten informazioa izateko baldintzak sortzea.

d) Batzordeak emandako ebazpenetatik abiatuta dokumentuen datutegi bat sortzea, aldekoena zein kontrakoena, irizpide baliokideak aplikatzeko eta eguneratuta mantentzeko. Datutegi horietan, puntu hauek zehaztuko dira: irakasgaiak, aitorpenaren jatorria eta xedea, kredituak, ikasketak eta ikasketak zein unibertsitatetan edo goi-mailako ikastegitan egin ziren, bai eta aplikatutako laneko edo lanbideko esperientzia onartzeko eta kreditu bihurtzeko irizpideak ere.

e. Unibertsitateko Aitorpen Batzordearekin lankidetzan aritzea, bereziki bere jarduera eremuan beharrezkotzat jotzen diren aldaketak eta hobekuntzak proposatzeko.

**8. artikulua.** Ebazpena

1. Aitorpenak egiteko eskumena duen batzordeak ebazpena emango du, arau hauetan ezarritakoaren arabera. Idazkaritza Orokorrak jakinaraziko dio eskatzaileari ebazpenaren berri.

2. Aitorpena ebaztean, agerian jasoko da zenbat kreditu aitortzen zaizkion ikasleari, eta zer irakasgai ez dituen egin behar, egiaztatuta daudelako gaitasunak edo ikaskuntzaren emaitzak eta horiei lotutako edukiak eta ezagutzak arau hauetan ezarritakoaren arabera lortuta daudelako.

3. Aurrez egindako unibertsitateko ikasketetan lortutako kredituengatik irakasgai bat aitortzeko ebazpenean, informazio hau jasoko da:

a) Aitorpenaren jatorri den gainditutako irakasgaiaren identifikazioa: izena.

b) Ebazpena aldekoa bada, DUko ikasketa planeko zer irakasgai onartzen d(ir)en, araudi hau aplikatuz dagokion kalifikazioarekin.

c) Ebazpena kontrakoa bada, zergatik ukatu zaion.

4. Egiaztatutako laneko esperientziaren edo lanbideko esperientziaren ondorioz irakasgai bat aitortzeko ebazpenean, egindako proba edo probak, egiaztatutako gaitasunak eta, aldekoa bada, kreditu kopurua eta aitortutako irakasgaiak adierazi beharko dira.

5. Ikasketa plan berri bat ezartzean, onartutako memorian jasota dauden ikasketa plan baten eta bestearen arteko espedienteen egokitzapenean jasota dauden irakasgaien aitorpenek ez dute Batzordearen ebazpenik behar, eta automatikoki aplikatuko dira, arau hauen III. kapituluan deskribatzen denez.

6. Kontrako ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasi eta zazpi egun naturaleko epean, ikasleak berriz aztertzeko eskaera arrazoitua aurkeztu ahal izango du, betiere hura justifikatzen duten datu berriak aurkezten baditu edo ebazpena behar bezala oinarrituta ez badago. Ebazpena

lución fuera emitida por la comisión de reconocimientos de Universidad, esta solicitud deberá dirigirse al rector; si fuera emitida por las comisiones de centros (facultades o centros adscritos), deberá dirigirse a la de Universidad. En cada caso, el responsable convocará, de nuevo a la correspondiente comisión de reconocimientos que resolverá en el plazo de siete días naturales desde la interposición del recurso.

**Artículo 9.** Incorporación en el expediente y certificación

1. Para la obtención de un título de la Universidad de Deusto, el conjunto de créditos reconocidos en una titulación de Grado no podrá exceder el 75% del total de créditos exigidos para la obtención del título, ni del 50% en los estudios de Máster Universitario, títulos propios o de formación permanente, a excepción de las situaciones que se produzcan como consecuencia de la aplicación de las tablas de adaptación o de asimilación que figuren en los documentos de aprobación del título.

2. Tras la resolución favorable, el estudiante podrá incorporar los reconocimientos en su expediente en el proceso de matrícula, a medida que avance en los estudios, de acuerdo con las normas de progreso y permanencia.

3. El reconocimiento de una asignatura consume una convocatoria de evaluación.

4. Los reconocimientos en razón de estudios realizados en programas de movilidad de estudiantes, así como los efectuados entre los títulos en Programación Conjunta de Estudios Oficiales (PCEO), surtirán efecto en el periodo de confirmación de las calificaciones.

5. Las asignaturas reconocidas figurarán como tales en el expediente del estudiante, con la calificación que corresponda, si ha lugar, en aplicación de lo dispuesto en esta Normativa, y así quedarán reflejadas en las certificaciones y, en su caso, en el Suplemento Europeo al Título.

6. Las calificaciones de las asignaturas que resulten reconocidas en razón de los estudios cursados en programas de movilidad se obtendrán atendiendo al valor formativo conjunto, de conformidad con la legislación vigente y la normativa de la Universidad de Deusto que regule el sistema de calificaciones en cada momento.

7. Con la excepción hecha en el punto anterior, la calificación de cada asignatura reconocida en razón de los créditos obtenidos en estudios universitarios será equivalente a la calificación obtenida en la materia o asignatura que ha dado origen al reconocimiento. En caso necesario, se realizará la media ponderada por créditos cuando varias materias o asignaturas conlleven el reconocimiento de una, o varias, en la titulación de destino.

8. Si la certificación aportada por el estudiante en su solicitud de reconocimiento contemplara únicamente calificación literal en la materia o asignatura objeto de la solicitud, a dicha calificación literal se le asignará la calificación numérica estándar que corresponda, en aplicación de las Normas sobre calificaciones que rigen en la Universidad de Deusto.

9. Las asignaturas reconocidas no incorporan idioma en que se han cursado, puesto que no han sido cursadas.

10. No incorporarán calificación, por lo que sus créditos no computarán a efectos de baremación del expediente, las asignaturas que resulten reconocidas en razón de:

a) experiencia profesional o laboral acreditada;
b) enseñanzas universitarias no oficiales para expedientes de estudios oficiales;

unibertsitateko Aitorpen Batzordeak ematen badu, eskaera errektoreari zuzendu beharko zaio; ikastegietako batzordeek (fakultateek eta atxikitako zentroek) ematen badute, berriz, Unibertsitateari zuzenduko zaio. Kasu bakoitzean, arduradunak dagokion aitorpen batzordea deituko du berriro, eta errekurtsoa jarri eta zazpi egun naturaleko epean ebatziko du.

**9. artikulua.** Espedientean sartzea eta ziurtatzea

1. Deustuko Unibertsitateko titulu bat lortzeko, graduko titulazio batean aitortutako kredituen multzoak ezin izango du titulua lortzeko eskatzen diren kreditu guztien % 75 gainditu, ezta unibertsitate masterreko ikasketetan, titulu propioetan edo etengabeko prestakuntzako ikasketetan eskatzen diren kredituen % 50 ere, titulua aitortzeko dokumentuetan agertzen diren egokitzapen edo parekatzeko taulak aplikatzearen ondorioz sortzen diren egoeretan izan ezik.

2. Aldeko ebazpena eman ondoren, ikasleak bere espedientean sartu ahal izango ditu onarpenak matrikula-prozesuan, ikasketetan aurrera egin ahala, ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauei jarraituz.

3. Irakasgai bat aitortzeak ebaluazio deialdi bat agortzen du.

4. Ikasleen mugikortasuneko programetan egindako ikasketengatiko aitorpenek, bai eta ikasketa ofizialen programazio bateratuko tituluen artean egindakoek ere, kalifikazioak berresteko aldian izango dute eragina.

5. Aitortutako irakasgaiak halakotzat agertuko dira ikaslearen espedientean, dagokion kalifikazioarekin, hala badagokio, araudi honetan xedatutakoa aplikatuz, eta horrela jasoko dira ziurtagirietan eta, hala badagokio, Tituluaren Europako Gehigarrian.

6. Mugikortasuneko programetan egindako ikasketengatik aitortzen diren irakasgaien kalifikazioak baterako prestakuntzako balioaren arabera lortuko dira, indarrean dagoen legeriarekin eta une bakoitzeko kalifikazio-sistema arautzen duen Deustuko Unibertsitateko araudiarekin bat etorriz.

7. Aurreko puntuan egindako salbuespena kontuan hartuta, unibertsitateko ikasketetan lortutako kredituen arabera aitortutako irakasgai bakoitzaren kalifikazioa aitorpena eragin duen ikasgaian edo irakasgaian lortutako kalifikazioaren baliokidea izango da. Beharrezkoa izanez gero, kredituen batez besteko haztatua egingo da zenbait ikasgaik edo irakasgaik xede titulazioan bat edo gehiago aitortzea dakartenean.

8. Ikasleak aitorpeneko eskabidean aurkeztutako ziurtagirian eskaeraren xede den jakintzagaian edo irakasgaian kalifikazio literala bakarrik jasotzen bada, kalifikazio literal horri dagokion zenbakizko kalifikazio estandarra esleituko zaio, Deustuko Unibertsitatean indarrean dauden kalifikazioei buruzko arauak aplikatuta.

9. Aitortutako irakasgaiek ez dute jasoko zein hizkuntzatan egin diren, ez baitira egin.

10. Ez dute kalifikaziorik izango eta, beraz, kredituak ez dira kontuan hartuko espedientearen baremazioari dagokionez, honako arrazoi hauengatik aitortzen diren irakasgaiek:

a) egiaztatutako laneko edo lanbideko esperientziak;
b) ofizialak ez diren unibertsitateko irakaskuntzek, ikasketa ofizialen espedienteetarako;

c) enseñanzas superiores artísticas, deportivas o de formación profesional;
d) créditos obtenidos mediante actividades culturales, deportivas, de representación estudiantil, solidarias y de cooperación;
e) otras actividades académicas que con carácter docente organice la Universidad de Deusto.

## CAPÍTULO III

### Adaptación de un expediente a un nuevo plan de estudios

**Artículo 10.** Definición de la adaptación de expedientes

La adaptación de un expediente, correspondiente a un plan de estudios, a otro plan de estudios (ambos conducentes a la obtención del mismo título) es el procedimiento por el cual se aplican los reconocimientos previstos *a priori* entre las asignaturas de ambos planes de estudios, de modo que se pueda continuar con los estudios iniciados y no finalizados y obtener el título.

**Artículo 11.** Ámbito de aplicación de la adaptación de expedientes

Este capítulo se aplica a todos los estudios ofertados en la Universidad de Deusto, sean conducentes a la obtención de títulos oficiales españoles o propios de la Universidad o de la Santa Sede, con la excepción, en su caso, de los planes de estudios conducentes a la obtención de títulos conjuntos interuniversitarios que se atendrán a lo establecido en los convenios reguladores.

**Artículo 12.** Criterios para la adaptación de expedientes

1. Los criterios para la adaptación de expedientes son los establecidos, con carácter general, para el reconocimiento de créditos y, de acuerdo con ellos, se configurará la tabla de adaptación o tabla de reconocimientos para la adaptación.

2. No obstante, no rige la limitación para el reconocimiento de Trabajo Fin de Estudios pues fueron desarrollados y superados en el marco de un plan de estudios conducente a la obtención del mismo título, ni tampoco rige la limitación por la que, para la obtención de un título UD, el conjunto de créditos reconocidos en una titulación de Grado no podrá exceder el 75 % del total de créditos exigidos para la obtención del título, ni del 50 % en los estudios de Máster Universitario, títulos propios o de formación permanente.

**Artículo 13.** Solicitud para la adaptación de un expediente

La persona interesada solicita en Secretaría General la adaptación de su expediente al nuevo plan de estudios y, si cumple requisitos de permanencia en los estudios, se aplica el conjunto de reconocimientos aprobados en la tabla para la adaptación.

**Artículo 14.** Efectos de la adaptación de expedientes

Como consecuencia de la adaptación de un expediente, quedan reconocidas las asignaturas que corresponda y, por tanto, no deberán ni podrán ser cursadas de nuevo.

**Artículo 15.** Incorporación en el expediente y certificación

1. La adaptación del expediente surte efecto con la primera matrícula en el nuevo plan de estudios, siendo irrevocable.

c) goi-mailako arte-ikasketek, kirol-ikasketek edo lanbide heziketako ikasketek;
d) kultura, kirol, ikasleen ordezkaritza, elkartasun eta lankidetzako jardueren bidez lortutako kredituek;
e) Deustuko Unibertsitateak irakaskuntzarako antolatzen dituen jarduera akademikoengatik lortutako kredituek.

## III. KAPITULUA

### Espedientea ikasketa plan berri batera egokitzea

**10. artikulua.** Espedienteak egokitzearen definizioa

Ikasketa plan bati dagokion espediente bat beste ikasketa plan batera egokitzea (biak titulu bera lortzera bideratuak) da bi ikasketa planetako irakasgaien artean *a priori* aurreikusitako aitorpenak aplikatzeko prozedura, hasitako eta amaitu gabeko ikasketekin jarraitu ahal izateko eta titulua lortzeko.

**11. artikulua.** Espedienteak egokitzearen aplikazio eremua

Kapitulu hau Deustuko Unibertsitatean eskaintzen diren ikasketa guztiei aplikatzen zaie, Espainiako titulu ofizialak edo Unibertsitatearenak edo Egoitza Santuarenak diren titulu ofizialak lortzera bideratuta daudenei, unibertsitate arteko titulu bateratuak lortzera bideratutako ikasketa planen kasuan izan ezik, horiek hitzarmen arautzaileetan ezarritakoari jarraituko baitiote.

**12. artikulua.** Espedienteak egokitzeko irizpideak

1. Espedienteak egokitzeko irizpideak, oro har, kredituak aitortzeko ezarritakoak dira eta, irizpide horien arabera, egokitzapen taula edo egokitzapena aitortzeko taula eratuko da.

2. Hala ere, ikasketen amaierako lana aitortzeko muga ez da aplikatzen, titulu bera lortzera bideratutako ikasketa plan baten esparruan garatu eta gainditu baitzen. Halaber, DUko titulu bat lortzeko, ez da aplikatzen graduko titulazio batean aitortutako kredituak % 75 baino gehiago ez izatea, ezta unibertsitate masterreko, titulu propioko edo etengabeko prestakuntzako ikasketen % 50 baino gehiago ez izatea ere.

**13. artikulua.** Espedientea egokitzeko eskaera

Interesdunak Idazkaritza Orokorrean bere espedientea ikasketa plan berrira egokitzeko eskatzen badu eta, ikasketetan jarraitzeko baldintzak betetzen baditu, egokitzapenerako taulan onartutako aitorpenen multzoa aplikatzen zaio.

**14. artikulua.** Espedienteak egokitzearen eraginak

Espediente bat egokitzearen ondorioz, dagozkion irakasgaiak aitortuta geratzen dira eta, beraz, ezin izango dira berriro egin.

**15. artikulua.** Espedientean sartzea eta ziurtatzea

1. Espedientea egokitzeak eragina du ikasketa plan berriko lehen matrikularekin, eta ezeztaezina da.

2. Las asignaturas que hayan quedado reconocidas por efecto de la adaptación figuran en el expediente y, en consecuencia, en la certificación con indicación de reconocimiento por adaptación de expediente.

3. El curso académico será el de superación de la asignatura. Si el origen de reconocimiento es más de una asignatura, el curso será el de la última de ellas, si no fueran coincidentes.

4. Se traslada el número de convocatorias consumidas para la superación. Si el origen de reconocimiento es más de una asignatura y no coincidieran el número de convocatorias, se traslada el número mayor de convocatorias.

5. La calificación se calcula con el criterio general para reconocimientos, con la excepción del punto siguiente.

6. Dado que el origen de reconocimiento por adaptación es una o más asignaturas de un plan de estudios conducente a la obtención del mismo título, y el curso que figurará es el de dicha superación, si la asignatura origen de reconocimiento, o la totalidad de ellas si son más de una, obtuvo mención Matrícula de Honor, ésta se trasladará al nuevo expediente.

7. Las asignaturas reconocidas en el proceso de adaptación de expediente incorporan el idioma en que fueron cursadas y superadas, salvo que el origen sea más de una asignatura y el idioma no sea coincidente.

8. Las asignaturas que figuren en la tabla de reconocimientos para la adaptación de expedientes y no hayan sido superadas en el plan de estudios inicial no pueden ser reconocidas, por lo que las correspondientes en el nuevo plan de estudios no tienen ninguna convocatoria consumida.

## CAPÍTULO IV

## Tasas de reconocimiento

**Artículo 16.** Tasas de reconocimiento

1. Los créditos de asignaturas reconocidas solo devengarán la tasa de reconocimiento que anualmente establezca la Universidad de Deusto.

2. La tasa de reconocimiento se abonará, una vez incorporado el reconocimiento al expediente, en un único pago.

3. Están exentos de tasas de reconocimiento:

a) los créditos reconocidos por aplicación de la tabla de adaptación o de asimilación al título, comprendida en los documentos de aprobación del plan de estudios, (inicial o modificación);
b) los reconocimientos entre asignaturas de los planes de estudios que componen una Programación Conjunta de Estudios Oficiales (PCEO);
c) los créditos obtenidos en programas de movilidad o en estudios regidos por convenios de colaboración formativa entre dos o más universidades, en los términos en los que determine el acuerdo de reconocimientos previamente establecido en cada caso.

## TÍTULO II

## SOBRE LA TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS

**Artículo 17.** Definición de la transferencia de créditos

La transferencia de créditos académicos es la inclusión, en el expediente académico y en el Suplemento Europeo al Título, de la totalidad de los créditos obtenidos en enseñanzas ofi-

2. Egokitzearen ondorioz aitortuta geratu diren irakasgaiak espedientean agertzen dira eta, ondorioz, ziurtagirian, espedientea egokitzeagatiko aitorpena dela adierazita.

3. Ikasturtea irakasgaia gainditu zena izango da. Aitorpenaren jatorria irakasgai bat baino gehiago bada, ikasturtea horietako azkena egin zenekoa izango da, bat ez badatoz.

4. Gainditzeko behar izan den deialdien kopurua jasoko da. Aitorpenaren jatorria irakasgai bat baino gehiago bada eta deialdi kopurua bat ez badator, deialdi kopuru handiena jasoko da.

5. Kalifikazioa aitorpenetarako irizpide orokorraren arabera kalkulatzen da, hurrengo puntuan izan ezik.

6. Egokitzapenagatiko aitorpenaren jatorria titulu bera lortzera bideratutako ikasketa plan bateko irakasgai bat edo gehiago izanik, eta adieraziko den ikasturtea gainditu zenekoa izanik, aitorpenaren jatorria den irakasgaiak (edo guztiek, bat baino gehiago badira) Ohorezko Matrikula aipamena lortu bazuen, hala jasoko da espediente berrian.

7. Espedientea egokitzeko prozesuan aitortutako irakasgaiek ikasi eta gainditu ziren hizkuntza jasotzen dute, salbu eta jatorria irakasgai bat baino gehiago bada eta hizkuntza bat ez badator.

8. Espedienteak egokitzeko aitorpenen taulan agertzen diren eta hasierako ikasketa planean gainditu ez diren irakasgaiak ezin dira aitortu; beraz, ikasketa plan berrian dagozkienak ez dute deialdirik agortu.

## IV. KAPITULUA

## Aitorpen-tasak

**16. artikulua.** Aitorpen-tasak

1. Onartutako irakasgaien kredituek Deustuko Unibertsitateak urtero ezartzen duen aitorpen-tasa baino ez dute ordaindu beharko.

2. Aitorpen-tasa ordainketa bakar batean ordainduko da, aitorpena espedientean sartu ondoren.

3. Aitorpen-tasetatik hauek daude salbuetsita:

a) tituluari egokitzeko edo parekatzeko taula aplikatzeagatik aitortutako kredituak, ikasketa plana onartzeko dokumentuetan jasotakoak (hasierakoa edo aldatzekoa);
b) ikasketa ofizialen programazio bateratua osatzen duten ikasketa planetako irakasgaien arteko kredituak;
c) bi unibertsitateren edo gehiagoren arteko prestakuntzako lankidetza-hitzarmenek arautako mugikortasuneko programetan edo ikasketetan lortutako kredituak, kasu bakoitzean aurrez ezarritako aitorpen-akordioak ezartzen dituen baldintzetan.

## II. TITULUA

## KREDITUEN TRANSFERENTZIA

**17. artikulua.** Kredituen transferentziaren definizioa

Kreditu akademikoen transferentzia da Tituluaren Europako Gehigarrian eta ikasketa espedientean sartzea aurretik Deustuko Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean egin-

ciales del mismo nivel cursadas con anterioridad, en la Universidad de Deusto o en otra universidad, que no hayan conducido a la obtención de un título oficial.

**Artículo 18.** Ámbito de aplicación de la transferencia de créditos

La transferencia de créditos podrá darse:

1. De estudios oficiales españoles a estudios oficiales españoles.
2. De estudios de la Santa Sede a estudios de la Santa Sede.
3. De estudios extranjeros a estudios oficiales de Grado españoles cuando se accede por reconocimiento de al menos 30 créditos ECTS.

**Artículo 19.** Efectos de la transferencia de créditos

1. Los créditos transferidos serán incluidos en el expediente académico del estudiante y reflejados en las certificaciones académicas y en el Suplemento Europeo al Título.

2. Los créditos transferidos no surten efectos de reconocimiento en el expediente del plan de estudios al que se incorporan, si no hay solicitud, resolución favorable y aplicación en el expediente.

3. La transferencia de créditos se realizará de oficio una vez que obre en poder de la Universidad de Deusto la certificación académica oficial de los estudios previamente cursados, o certificación oficial expedida por la autoridad competente en el caso de estudios extranjeros.

4. La Universidad de Deusto no certificará los créditos obtenidos en estudios oficiales españoles que hayan sido transferidos a un expediente al margen del expediente académico al que se han incorporado.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Las referencias a personas, colectivos o cargos académicos en estas normas figuran en género gramatical no marcado. Cuando proceda, será válida la interpretación de los artículos correspondientes en género femenino, así como la cita en su caso.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Acuerdo 3/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico, por el que se aprueba la Normativa Académica para el Reconocimiento y Transferencia de créditos en los estudios de primer ciclo y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.** Las situaciones excepcionales no contempladas en el presente articulado serán resueltas por el secretario general y, por su delegación, por el vicesecretario general, previa presentación suscrita por el interesado de instancia razonada y justificada documentalmente, siempre en el marco legislativo universitario.

**Segunda.** Estas normas entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de la Universidad de Deusto.

dako maila bereko ikasketa ofizialetan lortu diren kreditu guztiak, baina titulu ofizial bat lortu ez bada.

**18. artikulua.** Kredituen transferentziaren aplikazio eremua

Kredituen transferentzia honela egin ahal izango da:

1. Espainiako ikasketa ofizialetatik Espainiako ikasketa ofizialetara.
2. Egoitza Santuko ikasketetatik Egoitza Santuko ikasketetara.
3. Atzerriko ikasketetatik Espainiako graduko ikasketa ofizialetara, gutxienez 30 ECTS kreditu aitortuta sartzen direnean.

**19. artikulua.** Kredituen transferentziaren eraginak

1. Transferitutako kredituak ikaslearen espediente akademikoan sartuko dira, eta ziurtagiri akademikoetan eta Tituluaren Europako Gehigarrian jasoko dira.

2. Transferitutako kredituek ez dute aitorpen-ondoriorik gehitzen zaizkion ikasketa planaren espedientean, baldin eta espedientean ez badago eskaerarik, aldeko ebazpenik eta aplikaziorik.

3. Kredituen transferentzia ofizioz egingo da Deustuko Unibertsitatearen esku dagoenean aldez aurretik egindako ikasketen ziurtagiri akademiko ofiziala edo, atzerriko ikasketen kasuan, agintari eskudunak emandako ziurtagiri ofiziala.

4. Deustuko Unibertsitateak ez ditu ziurtatuko Espainiako ikasketa ofizialetan lortutako kredituak, sartu diren espediente akademikoa alde batera utzita beste espediente batera transferitu badira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 3/2016 Erabakia, Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehen zikloko eta bigarren zikloko ikasketetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko Araudi Akademikoa onartzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.** Artikulu honetan jasotzen ez diren salbuespenezko egoerak idazkari nagusiak ebatziko ditu eta, hala badagokio, eskuordetuta, idazkariorde nagusiak, interesdunak agiri bidez arrazoitutako eta justifikatutako instantzia aurkeztu ondoren.

**Bigarrena.** Arau hauek Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.